



JUSTIZIA ETA GIZA  
ESKUBIDEEN SAILA

Justizia Sailburuordetza

Justizia Administrazioako Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA Y  
DERECHOS HUMANOS

Viceconsejería de Justicia

Dirección de la Administración de Justicia

**EBAZPENA, JUSTIZIA ADMINISTRAZIOKO ZUZENDARIARENA, ZEINAREN BIDEZ DEIALDIA EGITEN BAITA ZERBITZU-EGINKIZUNEN, BEHIN-BEHINEKO ATXIKIPENAREN ETA ORDEZKAPEN BERTIKALAREN BIDEZ ALDI BATERAKO LANPOSTUAK BETETZEKO.**

1.- Botere Judizialaren Lege Organikoaren 527. artikulua araberak, lanpostu hutsak zerbitzu-eginkizunen eta ordezkapenen bidez beteko dira aldi baterako, eta 514. artikulua, berriz, lanpostu huts bati atxikita zerbitzu aktibora behin-behinean itzultzea aurreikusten du.

2.- Abenduaren 7ko 1451/2005 Errege Dekretuak, Justizia Administrazioaren zerbitzuko funtzionarioen sarrerari, lanpostuak betetzeari eta lanbide-sustapenari buruzko Erregelamendua onartzen duenak, 69., 73. eta 74. artikuluetan arautzen du zerbitzu aktibora itzultzeari, zerbitzu-eginkizunei eta ordezkapenei buruzko gaia.

3.- Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuaren 2022ko ekainaren 7ko Aginduak Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioako lanpostuak aldi baterako betetzeko prozedura arautzen du.

4.- Deialdi honen xedea da I. eranskinean adierazitako lanpostuak zerbitzu-eginkizunen, behin-behineko atxikipenaren eta ordezkapen bertikalaren bidez aldi baterako betetzea.

5.- Zerbitzu-eginkizuna, behin-behineko atxikipena eta ordezkapen bertikala eskatu ahal izango dituzte Prozesu eta Administrazio Kudeaketako, Prozesu eta Administrazio Izapidetzako, Laguntza Judizialeko eta Auzitegiko Medikuen kidegoetako Justizia Administrazioaren zerbitzuko karrerako funtzionarioek.

6.- Lanpostuak aldi baterako betetzeko prozedura Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuaren 2022ko ekainaren 7ko Aginduan xedatutakoaren arabera gauzatuko da.

2022ko ekainaren 7ko Aginduaren 6.4 artikuluan aurreikusitako urtea zenbatzeko, erreferentzia-data 2026ko urtarrilaren 29a izango da (NUMO ezarpen-lanpostu berriez jabetu aurreko eguna), Amurrio, Azpeitia, Balmaseda, Bergara, Durango, Gernika-Lumo, Getxo, Irun eta Tolosako barruti judizialeko langileentzat.

7.- Eskabideak: hiru egun balioduneko epean aurkeztu beharko dira, deialdia argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/12050> helbidearen bidez.

8.- Behin-behineko esleipenen publizitatea: Justiziako langileen atarian eta Justiziako web-orrian. Argitaratzen denetik hiru egun balioduneko epea emango da alegazioak egiteko.

9.- Behin betiko esleipenen publizitatea: Justiziako langileen atarian eta Justiziako web-orrian.

Vitoria-Gasteiz, sinadura digitalaren egunean

Alfonso Gómez Fernández  
JUSTIZIAKO SAILBURUORDEA

(Justizia Administrazioako zuzendariaren ordezkari)

Justizia eta Giza Eskubideen Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 5eko 326/2024 Dekretuaren lehen xedapen gehigarria.